

## ENTZUMENA

**Ekintza komunikatiboa:** Gertakari baten kronika egiten duten bertso musikatuak ulertzea, nahiz eta esamolderen batekin gorabeherak izan.

### Lehen Mundu Gerra bertsoan

#### 1

Zorigaiztoan fundatutako  
Alemaniako gerra.  
Aise nahi zuten eskuperatu  
gure erreinu ederra;  
oraindik ere bada Frantzian  
dirua eta indarra.  
Lehen zen bezala ipintzeko  
izango dugu beharra.

#### 2

Amorratuak ziruditela,  
etorri ziren Frantziara.  
Orain esaten errazago da  
orduko gure trantzea.  
Jeneral Foch-ek eman diete  
uste ez zuten partxea.  
Mereziko du diamantezko  
estatua bat jartzea.

#### 3

Aleman batek niri esana,  
biok geundela kafean:  
«Kaiser agintzen ikusiko da  
laster Parisko Gortean».  
Zepelinekin airetik eta  
sumarinoak urpean,  
disgustu asko eman digute  
joan deneko lau urtean.

4

Zepelin zaharrak bonbaz beteak,  
goiko ororien tartean.  
Milaka mina itsasoan eta  
sumarinoak urpean;  
Horiek sumatzen ibili dira,  
berrogei eta lau urtean.  
Kaiser Parisen ez da sartuko  
Wilson bizi den artean.

5

Gerra gaizto hau eman zutela,  
hau da bosgarren urtea.  
Horiek besteren interesarekin  
hartu nahi zuten partea.  
Ingeles eta amerikano,  
gu bezain jende fuertea,  
alemaniarrei eman diete  
izugarritzko kolpea.

6

Laguntzaileak nondik dituen  
ezagutu du Frantziak.  
Geure setari eutsi diogu,  
ez ginen dudan hasiak.  
Biba gerra honetan gure fabore  
ibili diren guztiak;  
nire partetik ematen dizkiet  
eskerrak eta graziak.

**Txirritaren bertsoak (Lete/Valverde)**

**X. bertso-sorta (Alemaniyako gerra)**

**(Transkripzioa)**

Foch jenerala: Indar aliatuen komandante-burua, Lehen Mundu Gerran.

Partxea eman: Jipoitu, astindu, ordaina eman.

Kaiser: Wilhelm II.a zen, garai hartan, Alemaniako enperadore edo kaiserra.

Oroi: "Hodei" hitzaren sinonimoa.

Thomas Wilson: AEBetako presidentea, Lehen Mundu Gerra garaian.

Setari eutsi: Ez etsitzea, egoskor borrokatzea.